

## Informazioaren Segurtasun Politika

---

Lantegi Batuak konprometituta dago **informazioa babestearekin**. Babes horrek erakundearen barruko informazioari ez ezik hirugarrenekin partekatutakoari ere eragiten dio. Lantegi Batuak informazioa babestuko dute, eta, horretarako, kontuan hartuko dituzte aplikatzekoa den araudian eta Kode Etikoan eta Jokabide Arauetan zehaztutako printzipio etikoak, bai eta aplikatzekoa den barne-araudi osoan aurreikusitakoak ere. Xede horretarako, hauxe ezartzen du Lantegi Batuak erakundearen kudeaketa-gidalerroak biltzen dituen Kudeaketa Eskuliburuak: «Informazioaren eskuragarritasuna eraginkortasunez kudeatzea, informazio-aktiboen konfidentzialtasuna, osotasuna eta eskuragarritasuna bermatzeko, eta, aldi berean, segurtasun-arriskuak minimizatzeko».

**Informazioaren Segurtasun** gisa ulertzen da informazioa babestea eta gordetzea: alde batetik, Lantegi Batuak erakundearena, eta, bestetik, Lantegi Batuak hirugarrenei buruz daukatenarena. Hala, politika hau Lantegi Batuak kudeatutako informazioa eraginkortasunez babesteko jarraibideak definitzen dituen erreferentzia-esparrua da, eta honako **helburu** hauek ditu:

- Informazio-mota bakoitzari beharrezko **konfidentzialtasun-maila** bermatzea.
- Informazioaren **osotasunari** eustea, ez dezan izan aldaketarik informazioaren jabeek edo arduradunek sortzen duten unean.
- Informazioaren **eskuragarritasuna** bermatzea, euskarri guztietan eta beharrezkoa den bakoitzean, jardueraren jarraitutasuna eta Lantegi Batuei eska dakizkiokeen betebeharrak guztiak betetzen direla ziurtatuz.

Helburu horiek lortzeko, honako **oinarrizko printzipio** hauek hartu behar dira kontuan beti, ulerturik nahitaezkoak direla informazioaren segurtasuna bermatzeko:

- **Irismen estrategikoa:** Informazioaren segurtasunak erakundeko antolaketa- eta funtzio-maila guztien konpromisoa eta babesaren izan beharko du.
- **Segurtasun integrala:** Informazioaren segurtasuna elementu teknikoek, giza elementuek, materialek eta antolamendukoek osatutako prozesu integraltzat hartuko da. Era berean, informazioaren segurtasuna ohiko eragiketatzat hartu beharko da, eta Lantegi Batuak egiten dituen prozesu eta jarduera guztietan presente egon eta aplikatuko da.
- **Kontzientziazioa:** Funtsezkoa da informazioaren segurtasunaren arriskuez jabetzea, bai eta informazioa babesteko beharrezkoak diren jardunbideak ezagutzea eta aplikatzea ere.
- **Arriskuen kudeaketa:** Arriskuen analisia eta kudeaketa funtsezkoa izango da informazioaren segurtasunerako. Arriskuen kudeaketak ingurune kontrolatua mantentzea ahalbidetuko du, arriskuak minimizatuz.
- **Proporzionaltasuna:** Nolanahi ere, informazioa babesteko, detektatzeko eta, hala badagokio, berreskuratzeko neurriak proportzionalak izango dira balizko arriskuei eta eragindako informazioaren eta zerbitzuen kritikotasunari eta balioari dagokienez.
- **Etengabeko hobekuntza:** Segurtasun-neurriak aldian-aldian berrebalatu eta eguneratuko dira, haien eraginkortasuna arriskuen eta babes-sistemen etengabeko bilakaerara egokitzeko.